

PRENTSA OHARRA: 2022.06.08

Aukeratuak Kimuak 2022ko katalogoa osatuko duten zazpi film laburrak

- Katalogo berriak fikzioa eta dokumentala jasotzen ditu
- Hiru lan euskara hutsean daude, eta gainerako lauak, gaztelaniaz. Gainera, zazpi laburretatik sei emakumezkoek zuzendu eta ekoiztutakoak dira

Kimuak programaren 25. edizioaren deialdira aurkeztutako **75 proposamenak** aztertu eta gero, zazpi film labur hautatu ditu epaimahaiak Kimuak 2022 katalogoa osatzeko: 'Contadores' (Irati Gorostidi), 'Cuerdas' (Esti Urresola), 'Fe' (Maidier Fernández), 'Hemen bizi da maitasuna' (Ainhoa Olaso eta Enara García), 'Hirugarren koaderno' (Lur Olaizola), 'Irrits' (Maidier Oleaga) eta 'Lanbroa' (Aitzol Saratxaga). **EtXepare Euskal Institutuak** antolatzen du Kimuak programa, **Zineuskadik** kudeatzen duena, euskal film laburren sustapena eta zabalkundea xede. Urtero bezala, euskal film laburren hautaketa hau nazioarteko zinema jaialdi zein ikus-entzunezko ekimen garrantzitsuenetara bidaliko da.

Aurtengo batzordea honako kideek osatu dute: **María del Puy Alvarado** –ekoizlea, gidoilaria eta irakaslea, Malvalanda ekoizpen etxearen sortzailea–; **Alejandro Díaz Castaño** –FICX, Gijóneko Nazioarteko Zinema Jaialdiko zuzendaria–; **Vanesa Fernández** –ZINEBI, Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiko zuzendaria–; **Iñaki Lazkano** –Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) irakaslea eta ikertzailea– eta **Javier Ocaña** –Zinema kritikaria eta idazlea–.

Kimuak 2022 katalogo berriak fikzioa eta dokumentala jasotzen ditu. Hizkuntzei dagokienez, filmetako hiru euskara hutsean eginak daude eta lau gaztelaniaz.

Aurtengoan, halaber, zazpi laburretatik sei emakumezkoek zuzendu eta ekoiztu dituzte.

Honako hauek dira hautatutako zazpi film laburren inguruko xehetasunak:

- ‘Contadores’, Irati Gorostidi.
- ‘Cuerdas’, Esti Urresola.
- ‘Fe’, Mainer Fernández.
- ‘Hemen bizi da maitasuna’, Ainhoa Olaso eta Enara García.
- ‘Hirugarren koaderno’, Lur Olaizola.
- ‘Irrits’, Mainer Oleaga.
- ‘Lanbroa’, Aitzol Saratxaga.

CONTADORES

Irati Gorostidi Agirretxe (Eguesibar, 1988) zinemagileak bigarrenez hartuko du parte Kimuak katalogoan, ‘Contadores’ lanarekin. 2017an Arantza Santestebanekin batera zuzendutako ‘Euritan’ dokumentalak ere parte hartu zuen programan.

1978an, metalaren hitzarmen berri baten negoziatioetan dago kokatuta ‘Contadores’ fikzioa. Militante libertarioen talde batek bere jarrera erradikala defendatzen du fabrikako kideen aurrean, langileen mugimenduaren atomizazioa etsipenez adierazten duten bitartean. Santiago Fernández de Mosteyrín, Jaime Ferrete, Claugia Pagès, Iskandar Rementeria, Maite Ronse, Natalia Suárez eta Marina Suárezek osatzen dute aktore-taldea.

Zinemagile nafarrak artea eta zinema ikasi zituen, eta Fulbright bekaduna izan zen New Yorken. Egun garatzen ari den bere lehen film luzea, ‘Anekumen’, Ikusmira Berriak 2022 programan eta mentoretza eta merkatu programetan hautatua izan da.

Punto de Vista 2021 jaialdiko X Filmsen irabazlea ere izan zen, eta bertan ekoiztutako 'San Simon 62', 2022an estreinatu da Iruñeko Zine Jaialdian. Bere filmak nazioarteko zinemaldi eta ekitaldietan proiektatu dira.

Tractora Koop E., artistaz osatutako kooperatiba bizkaitarrak, Apellaniz & De Sosa ekoiztetxe donostiarrak eta Maddi Barber nafarrak ekoiztu dute filma.

CUERDAS

Estibaliz Urresola Solaguren (Laudio, 1984) zinemagilearen fikzio hau Canneseko Semaine de la Critique-n estreinatu berri da eta Rails d'Or saria jaso du.

Bertan kontatzen du Ritaren istorioa. 90 urte ditu eta desagertzeaz dagoen abesbatza batean abesten du, entsegu-lokala mantentzea ahalbidetzen dien udal diru-laguntza galdu dutelako. Abesbatzakideek erabaki beharko dute ibarreko enpresa kutsatzaileenetako baten babesa onartzen duten, taldearen jarraipena salbatu ahal izateko.

Begoña Suárez Ereño, Miguel Garcés, Xanti Agirrezabalaga, Jone Laspiur, Oier Zuñiga, Ainhoa Jauregui, San Fuenteseko Emakumeen Abesbatza eta Muskizko Juego de Damas Antzerki Taldea dira film honen protagonistak.

Urresola ikus-entzunezko komunikazioan lizentziaduna da (UPV-EHU). Muntaiaren edizioa eta teoria ikasi zituen Kubako EICTV eskolan, eta ESCACen zinema zuzendaritza eta film business masterra du. 2011z geroztik, fikziozko eta dokumentaleko piezak idatzi, zuzendu eta ekoitzi ditu, estatuko eta nazioarteko jaialdi askotan parte hartu dutenak. 'Polvo Somos' (2020) fikziozko film labor onenaren sarirako hautagai izan zen 2022ko Goya sarietan, Bilboko ZINEBI jaialdiko Euskal Film labor Onenaren Sari Nagusia jaso ondoren. 2019an Sirimiri Films ekoiztetxea sortu zuen, eta gaur egun '20.000 especies de abejas', fikziozko bere lehen film luzea egiten ari da.

FE

Zer gertatzen da zientziak eta erlijioak bat egiten dutenean? Galdera horren bueltan sortu du Maider Fernández Iriartek (Donostia / San Sebastián, 1988) 'Fe' film laburra. 2016an 'Gure hormek' (María Elorzarekin batera zuzendutakoa) lanarekin hartu zuen parte Kimuak-en.

Sofia da bere azken lanaren protagonista. Ama birjina ikusi eta Lourdes bixitatzera joan ostean, sendagaitza zen gaixotasuna sendatuko zaio. Bitartean, beste leku eta momentu batean, mediku talde batek bere kasua aztertuko du.

'Mirari' Izenburua izango duen lehen fikzio lanean murgilduta dago hezitzaile eta zinemagile donostiarra. Bere dokumentalak askotariko jaialdietan izan dira ikusgai orain arte, besteak beste, BAFICI, Festival de Sevilla, DA edo FIC Urugay-n. 2019an Donostiako Zinemaldiko Zuzendari Berriak sailean estreinatu zuen lehen film luzea, 'Las letras de Jordi' dokumentala.

'Fe' 2022ko Malagako Zinemaldian estreinatu da, dokumental laburren sail ofizialean, eta epaimahaiaren aipamen berezia jaso du. Gainera, nazioarteko saria jaso du BAFICI 2022 jaialdian, nazioarteko lehiaketan, eta Las Palmas-ko 2022ko Jaialdian parte hartu du, Panorama España sailean.

HEMEN BIZI DA MAITASUNA

Ane Sagüés Abad, Miren Gaztañaga, Aroa Blanco eta Mila Goikoetxea dira 'Hemen bizi da maitasuna' filmeko protagonistak. Katixa, 22 urteko gaztea gurasoen etxean bizi da. Logela eta egonkortasuna hankaz gora jarrita, egoera lehertu egiten zaio. Familiatik kanpo bilatzen du babesa, lagun duen Leirek lagunduta. Amarengandik askatzeak libreago egingo duela erabakita, etxetik joateko hautua egiten du.

Ainhoa Olaso Sopelana (Durango, 1996) eta Enara Garcia Elkoroaristizabal (Leioa, 1996) gazteen proiektu hau 2021eko Aukera mentoretza programan aukeratua izan zen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren euskarazko proiektu bat sustatzeko babesa jaso zuen ZINEBI jaialdian egindako *pitching* saioan.

Ainhoa Olasok ikus-entzunezko komunikazioa ikasi zuen UPV/EHU-n, eta ondoren Larrotxenen (Donostia) gidoigintza eta zine zuzendaritzako ikastaroak egin zituen, Andoni De Carlos, Pablo Malo eta Michel Gaztambiderekin. Enara Garcia ikus-entzunezko komunikazioan graduatua da eta Estudios de Cine y Audiovisual Contemporáneos masterra egin zuen Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitatean.

Hainbat ikus-entzunezko proiektu egindakoak dira, besteak beste, Eider Rodriguezen narrazio batean oinarritutako 'Edonork ez luke' film laburra.

HIRUGARREN KOADERNOA

Lur Olaizola (Donostia-San Sebastián, 1988) zinemagilearen hirugarren film laburra da 'Hirugarren koaderno', eta Kimuak katalogoan parte hartzen duen bigarrena. 2021eko haukeraketan hautatua izan zen 'Zerua blu'. Parisko Cinéma du Réel jaialdi entzutetsuan aurkeztu berri du.

Aktore bat (Ana Torrent) eta zinemagile bat (Lur Olaizola) gidoi baten entseguan murgilduta daude. Gidoi horrek María Dolores González Katarainen, Yoyes-en, egunerokoa du oinarri, Mexikon erbersteratu zen bitartean idatzitakoa ETA utzi ondoren, 1980 eta 1985 artean.

Lur Olaizola zinema programatzailea eta zinemagilea da. 2015etik, Donostiako Tabakalerako ikus-entzunezko programazioa kudeatzen du eta 2020tik irakaslea da Elías Querejeta Zine Eskolan. 2017an José Val del Omar-en lehen atzera begirakoa komisariatu zuen New York-en (Distant Touch: José Val del Omar, Anthology Film Archives), eta 2021ean Berlinale Talents programan parte hartzeko hautatu zuten. Punto de Vista jaialdiko aukeraketa batzordeko kidea da.

IRRITS

Fikzio honetan, Izaro eta Clara, 17 urteko neska nerabe bi, haurrentzako udalekuetako begirale lanetan ari dira. Egun bero batean, Clarak irrikaz musukatzen du laguna. Izaro, desiraz blai, gertatu zaiona kudeatu nahian noraezean ibiliko da,

Clarak eraman nahi duen tokira jarraitzeko prest. Izaro Nieto, Ángela Echániz eta Xabier Elizalde dira aktore nagusiak. Malagako jaialdian estreinatu zen film laburra.

Maider Oleagak (Bilbao, 1976) 'Amaren ideia' (2010), 'Esperanza' (2012) eta 'Verabredung' (2017) dokumentalak idatzi eta zuzendu ditu. Azken horrekin Doc España sekzioan gailendu zen, SEMINCI jaialdian. Bere laburren artean daude 'Sitios prestados al aire' (2010) edo 'Luce neón', 'Gure Oroitzapenak' (Destierros, 2018) film kolektiboko zatia, Donostiako Zinemaldiko Zinemira sailean hartu zuena parte. Zinemaldian izan dira ikusgai, ere bai, 'Iragan Gunea Berlin' (2016) dokumentala, 'Verabredung'-en aurrekaria, eta 'Paso al límite', 'Muga deitzen da pausoa' filma bilakatu zena gero, Ikusmira Berriak sailerako hautatua izan zena eta Festival Internacional de Cine de Gijón eta Zinemaldiko Zinemira sailetan aurkeztu zena gero.

Elías Querejeta Zine Eskolako kolaboratzailea da eta 2020an Euskal Zinemaren Irizar sariko epaimahaiburu izan zen Donostiako Zinemaldian. 2021ean, gidoi onenari saria eman zioten bertan, 'Kuartk Valley' lanagatik eta 'Kinka' laburra ere saritu zuten Bilboko ZINEBI jaialdian.

LANBROA

Aitzol Saratxagaren (Bilbao, 1995) hirugarren film laburra da 'Lanbroa' drama fantastikoa. 'Basoan' eta 'Ziren' (FANT eta Caostica jaialdietan sarituta) laburrez gain, hainbat bideoklip zuzendu ditu Liher edo Las Selvas-en moduko taldeentzat.

Zuzendari lanetan ibiltzeaz gain, soinu-banden konposizioan dihardu, besteak beste, 'García y García' edo 'La higuera de los bastardos'-en. Gainera, irudi digitaleko teknikari eta kolorista gisa hainbat produkzioetan egin du lan.

'Lanbroa'-n, aita (Mikel Losada) eta alaba (Sara Balerdi) basoan bizi dira, isolaturik, eta zuhaitz artetik irteten den lanbroari beldur diotela. Izan ere, izaki bizidun ooren gorputzean eta adimenean efektu suntsitzailea eragiten du lanbroa horrek.

ZINEUSKADI >>



ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA

KIMUAK.

Ainara Mentxaka eta David Perez Sañudorena ('Aprieta pero raramente ahoga, Kimuak 2017) da gidoia eta Amania Films, Beude eta Euskal Herriko Zinema Eskolak (ECPV) ekoitzi dute.

Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus
www.etxepare.eus